



ARANTZAKO UDALA

OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2024.06.07

Ordua: 16:30

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Arantzako Herri Eskola Publikoari zuzeneko dirulaguntza emateko hitzarmenaren onespena.
3. Plantilla organikoan idazkari-kontu-hartzaile lanpostuan euskarazko C2 maila ezartzea ezestea.
4. LGTBfobiarik gabeko udalerrien sareari atxikitzea.
5. Palestinari buruzko moziora atxikitzea.
6. Lesakako eta Igantziko udalerrien arteko muga-lerroa berreskuratzea eta geometrikoki hobetzea - Mugaketarako udal-batzordea izendatzea.
7. Alkate Ebazpenak.
8. Eskera eta galderak.



ARANTZAKO UDALA

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2024ko maiatzaren 10eko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

2024ko maiatzaren 15eko ez-ohiko osoko bilkurako akta AHO BATEZ ONETSI DA.

2. ARANTZAKO HERRI ESKOLA PUBLIKOARI ZUZENeko DIRULAGUNTZA EMATEKO HITZARMENAREN ONESPENA.

Idazkariak Arantzako Herri Eskola Publikoari zuzeneko dirulaguntza emateko hitzarmenaren oinarriak azaldu ditu. Zentzu horretan, prestaturiko hitzarmena 2024-2025 ikasturterako dela azaldu du; izan ere, ikasturteko azalpen memoria 2024ko otsailean aurkeztu zen eta, gainera, 2023ko abenduan dagoeneko 500,00 €-ko dirulaguntza eman zen. Horrek guztiak dirulaguntza 2024-2025 ikasturterako dela ondorioztatzera eraman du.

Halaber, adierazi du 2024ko aurrekontuan ez dagoela Arantzako Herri Eskolari zuzeneko dirulaguntza emateko partidarik. Aldiz, osoko bilkurak dirulaguntza gastuen justifikazioa egin baino lehen edo gero emanen ote den adostu behar duela erran du (2024-2025 ikasturte hasieran edo bukaeran emateko). Horren arabera, dirulaguntza ikasturte hasieran eman behar bada 2024ko aurrekontuan aldaketa bat egin beharko litzateke, baina, ikasturte bukaeran eman behar bada, 2025eko aurrekontuan partida bat kontsignatu bertzerik ez zen egin beharko.

Jarraian, Arantzako Herri Eskolak aurkezturiko "Integrazio sozialerako antzerki tailerra" eta "Lurretik ikasiz proiektua" azalpen memorian agertzen denaren arabera, 900,00 €-ko laguntza bat beharko luketela adierazi du.

Azkenik, aipaturiko zuzeneko dirulaguntza emateko Dirulaguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 28. artikuluan xedaturikoa jarraitu beharra dela gogorarazi du.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Arantzako Herri Eskola Publikoari 2024-2025 ikasturtean zuzeneko dirulaguntza emateko hitzarmena onestea, ordainketa gastuen justifikazioa aurkeztu ondotik eginen dela zehaztuta.

2.- 2025eko aurrekontuan 1 3232 4820003 "ESKOLAKO PROIEKTUEN DIRULAGUNTZA HITZARMENA" partidaren eratu eta bertan 1.000,00 € kontsignatzeko konpromisoa.

3.- Alkateari ahalmen nahikoa ematea, dagokion justifikazioa aurkeztu ondoren, hala badagokio, urteko dirulaguntza Alkate Ebazpen bidez emateko.

4.- Alkateari ahalmen nahikoa ematea, urte bakoitzeko aurrekontuak hala baimentzen badu, zuzeneko dirulaguntza urtetik urtera luzatu ahal izateko, gehienez ere 4 urteko iraupena izan arte.

5.- Akordio hau Arantzako Herri Eskola Publikoari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.



ARANTZAKO UDALA

3. PLANTILLA ORGANIKOAN IDAZKARI-KONTU-HARTZAILE LANPOSTUAN EUSKARAZKO C2 MAILA EZARTZEA EZESTEA.

Idazkariak 2024ko maiatzaren 24an Administrazioan Euskaraz Taldeak Arantzako plantilla organikoan idazkari-kontu-hartzaile lanpostuan euskarazko C2 maila ezartzeko eta etorkizunean lanpostu hori betetzeko deialdietan kontutan hartzeko eskaeraren berri eman du.

Horri dagokionez, idazkariak honako hausnarketa hau egin duela azaldu du:

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 15.2. artikuluan xedaturikoak honako hau dio:

"2. Administrazio bakoitzak, bere eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako den nahitaezkoa euskara jakitea, eta gainerakoentzat merezimendu kualifikatuzat hartuko da, besteak beste."

Halaber, Nafarroako Administrazio Publikoetan, bere erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuko 22. eta 28. artikuluek eta Bederatzigarren xedapen gehigarriak honako hau diote:

" 22. artikulua. Euskararen ezagutzamaila.

- 1. Ele biko lanpostuetan egiaztatu beharreko euskararen ezaqutza-maila B1. B2 edo C1 izanen da, lanpostuaren ezaugarrien arabera. Maila horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritakoak dira.*
- 2. B1 ezaqutza-maila soilik eska daiteke beren eginkizun nagusien artean lan administratiboak ez dituzten D edo E mailako ele biko lanpostuetan.*

(...)

28. artikulua. Ele biko lanpostuak.

Eremu euskalduneko toki entitateek, beren eskumenen esparruan, euskararen ezaqutza zein lanpostutan den nahitaezkoa zehaztuko dute, eta beren plantilla organikoetan adieraziko dute zein diren ele biko lanpostu horiek. Gainerako lanpostuetan, euskararen ezaqutza merezimendu kualifikatua izanen da.

(...)

***Bederatzigarren xedapen gehigarria.** Merezimenduen nahitaezkotasuna eta balorazioa, gaituta dauden funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan.*

Euskara jakitea nahitaezkoa denean, idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu bakoitzari zer hizkuntza-eskakizun dagokion erabakiko da, betiere Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 248. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuetan, merezimenduen balorazioa Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 250. artikuluan ezarritakoaren arabera eginen da."

Era berean, Bortziritako Toki Entitateen plantilla organikoetan lanpostuei ezarri beharreko hizkuntza eskakizunari buruzka txostenean, 2019ko irailaren 23an Bortziritako Euskara mankomunitateak egina (Arantzako Udalaren 2020ko urriaren 1ean egindako osoko bilkura arruntean onartua), honako hau paratzen du:

"Bortziritako lanpostu publikoetan egiaztatu beharreko euskararen jakintza mailak baditu bi ezaigarri nagusi: behetik, ahozkoan B2 mailako gaitasuna eta idatziz A2koa gutxienezkotzat jotzea, goitik,



ARANTZAKO UDALA

lanpostu teknikoek eta idazkariak C2 maila egiazatu beharrezkotzat jotzea. araubideak hori zehaztu bezain pronto. lanpostu horiei dagozkien eginkizunei egoki erantzuteko.”

Horregatik guztiagatik, udalaren eskumena da, gauden euskal eremuarengatik, idazkari-kontu-hartzaile lanpostuan euskara ezagutza derrigorrezkoa dela ezartzea. Aldiz, 103/2017 Foru Dekretuko 22. artikulua gehiengo euskara ezagutza maila C1 dela dio. Beraz, ezin da idazkari-kontuhartzaile lanposturako C2 euskara ezagutza derrigorrezkoa ezarri.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- Arantzako plantilla organikoan idazkari-kontu-hartzaile lanpostuan euskarazko C2 maila ezartzeko eta etorkizunean lanpostu hori betetzeko deialdietan kontutan hartzeko Administrazioan Euskaraz Taldeak aurkezturiko eskaera ezestea.
- 2.- Eskatzaileari jakinaraztea Arantzako Udalak dagokion neurriak hartuko dituela, araubideak horretarako aukera eman bezain pronto, idazkari-kontu-hartzaile lanpostuan euskara C2 ezagutza maila derrigorrezkoa ezartzeko.
- 3.- Ebazpen hau Administrazioan Euskaraz Taldeari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

4. LGTBIFOBARIK GABEKO UDALERRIEN SAREARI ATXIKITZEA.

Idazkariak Bortziritako Berdintasun teknikariak helarazitako LGTBifobiarik gabeko udalerrien sareari atxikitzeko gutuna eta oinarrien berri eman du.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- LGTBifobiarik gabeko udalerrien sareari atxikitzea onestea, zeinek konpromiso hauek dakartzan:
 - Udaleko langileekin eta baliabideekin, sexu- eta genero-aniztasunaren alde lan egitea, eta LGTBI+ pertsonendako gune lagunkoiak sortzea.
 - Nafarroako Berdintasunerako Institutuak programa garatu eta kudeatzeko antolatuko dituen ekintzetan parte hartzea.
 - Programa garatzeko aukera eta laguntza emanen dituzten konpromisoen adierazpena sinatuta aurkeztea.

5. PALESTINARI BURUZKO MOZIORA ATXIKITZEA.

Joan den maiatzaren 15ean, NAKBAren 76. urteurrena bete zen eta urtemuga horrek gogorarazten digu palestinar herriak hamarkadak daramatzala Israelen apartheid erregimenaren mende. Egoera



ARANTZAKO UDALA

are larriagoa da 2023ko urriaren 8tik Israelek Gazako zerrendaren eta Palestinako lurralde osoaren aurka egiten duen eraso militarren ondorioz.

Maiatzaren 24an Nazioarteko Justizia Gorteak ebatzi zuen Israelek Rafah-ren (Gazako hegoaldean) gainera bere eraso militarra "berekala" geldiarazi behar zuela. Hegoafrikak Gorteari eskatu zion ebazpen hori larrialdi neurri gisa hartzea, Israelek Rafahen aurrera eramaten ari den jarduerak operazio genozida bat direla adieraziz eta palestinar herriaren biziraupena bera arriskuan jartzen dutela.

Nazioarteko Justizia Gorteak urtarrilaren amaieran eskatu zion Israeli Gazan laguntza humanitarioa sartzen uzteko, eta berretsi zuen agindu hori martxoaren amaieran. Horrez gain Israeli eskatu zion Gazako gerran "genozidio-egintzak saihesteko bere esku dauden neurri guztiak" har zitzala, eta txosten bat aurkez zezala, auzitegiak emandako aginduak aplikatzeko hartutako neurri guztiekin, hilabeteko epean. Gaur da eguna oraindik eskaera hori ez dela gauzatu.

Hori guztia egin da Hegoafrikako gobernuak 2023ko abenduaren 29an Nazioarteko Justizia Gortearen aurrean irekitako prozesuaren esparruan, Israel 1948ko Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioa urratzen ari zela argudiatuta, 2023ko urriaren 7tik aurrera abiatutako operazio militarrekin.

Operazio honen ondorioz, Israelek 36.000 pertsona baino gehiago hil eta 80.000 baino gehiago zauritu ditu, horietatik % 70 emakumeak eta haurrek. Gazako biztanle gehienak beren bizitokia nahitaez lekualdatzera behartuak izan dira. Hein handi batean Zerrendaren hegoaldera desplazatuak izan dira, Rafah-era. Lurralde horrek ez ditu lekualdatutako pertsonak artatzeko behar diren gutxienerako azpiegitura eta baliabideak.

Bitartean, laguntza humanitarioa dakarten ehunka kamioik, batez ere elikagaiak, Egipto eta Gaza arteko mugan blokeatuta jarraitzen dute, Israelen onespeneraren zain. Egungo erantzun humanitario guztia, neurri handi batean, UNRWaren ahalmenaren arabera da. Baina Nazio Batuen Agentzia kolapsoaren ertzean dago eta UNRWako 189 kideren heriotza baieztatu da.

Genozidioa salatzen duten protestak eta munduan zehar Palestinako herriari elkartasuna adierazten dioten adierazpenak ere aipagarriak dira. Euskal Herrian, herritarrek Israel Gazan egiten ari den genozidioa salatzeko eta berehalako su-etena eskatzeko mobilizazio asko gauzatu dituzte. Gernika-Palestina edo Yala Nafarroa plataformak erreferente bihurtu dira herri palestinarren aldeko borrokan eta, beraz, Israel egiten ari den genozidioaren aurkako borrokan.

Bestalde, mundu osoan zabaltzen ari den ikasleen elkartasun-olatuak Euskal Herrira ere iritsi da, eta dozenaka ikasleek Palestinarekiko elkartasun-ekimenak garatu dituzte, UPV/EHU edo NUPen kanpaldiak, batzarrak eta mobilizazioak eginez.



ARANTZAKO UDALA

Horregatik guztiagatik, Arantzako Udalak:

1. Israel Gazan egiten ari den genozidioa salatzen du, eta elkartasuna eta konpromisoa adierazten dio herri palestinarrari.
2. Israeli Nazioarteko Zuzenbide Humanarioa betetzea eskatzen dio, baita NBERen ebazpenak eta Nazioarteko Justizia Gorteak emandako ebazpenak ere.
3. Israeli irmoki eskatzen dio korridore humanitarioak irekitzeko eta Gazan eta Zisjordanian sua berehala eta modu iraunkorrean eteteko.
4. Irlandak, Norvegiak eta Espainiako estatuak Palestina estatu gisa ofizialki aitortzeko ekimena babesten du, euskal gizarteak aspalditik eskubide hori aitortzen diola aintzat hartuta.
5. UNRWA Nazio Batuen Agentziari babesa ematen dio eta Palestinan egin behar duen ezinbesteko lana aitortzen du.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuei, Nafarroako Foru Erkidegoari, Estatuko Gobernuari eta nazioarteko gainerako eragileei eskatzen die Palestinarekin dauden lankidetzaproiektuekin jarraitzeko eta indartzeko, eta eremu horretan lan egiten duten erakundeei babesa emateko eskatzen die, hala nola UNRWArri eta beste erakunde eta ekimen sozial batzuei.
7. Europar Batasunari eta, oro har, Nazioarteko Erkidegoari ahaleginak areagotzeko, bahitu eta preso guztiak askatzera eta herri palestinarrarentzat bake justu eta iraunkorra lortzera bideratutako kudeaketa diplomatikoak bultzatzeko eskatzen dio.
8. Herri palestinarrak estatu burujabe eta bideragarria izateko duen eskubidea berresten da.
9. Bere babesa ematen die Gernika-Palestina eta Yala Nafarroa Palestina eta Palestina plataformei, eta Palestinan giza eskubideen eta bake justu eta iraunkorraren defentsan egiten ari den lan garrantzitsua babesten du, baita Israel herri palestinarraren aurka egiten ari den genozidioa salatzen ere.

6. LESAKAKO ETA IGANTZIKO UDALERRIEN ARTEKO MUGA-LERROA BERRESKURATZEA ETA GEOMETRIKOKI HOBETZEA - MUGAKETARAKO UDAL-BATZORDEA IZENDATZEA.

Idazkariak azaldu du Toki Administrazioiko eta Despopulazioko zuzendari nagusiaren maiatzaren 30eko 315/2024 Ebazpen bidez Lesaka eta Igantzi udalerrien arteko muga-lerroa berreskuratzeko eta geometrikoki hobetzeko lanei hasiera eman zitzaiola.



ARANTZAKO UDALA

Horrela bada, aipaturiko Ebazpenaren 2. puntuan eta Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren 17 eta hurrengo artikuluetan xedaturikoari jarraiki, udalak alkatea, hiru zinegotzi, idazkaria eta udalak izendatzen duen perituaz osaturiko mugaketarako udal-batzordea izendatu beharko du.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Ondorengo mugaketarako udal-batzordea izendatzea:

- Alkatea: Saturnino Larralde Ibarrola
- 1º Zinegotzia: Igor Ugalde Salazar
- 2º Zinegotzia: Andoni Mitxelena Danboriena
- 3º Zinegotzia: Ana Maeztu Villanueva
- Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte.
- Peritua: Unai Rodriguez Korta.

2.- Honako akordio hau Toki Entitateentzako Aholkularitza juridikorako eta Lankidetzarako Zerbitzuari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

7. ALKATE EBAZPENAK..

2024ko 74tik 100era Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

8. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 17:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

Saturnino Larralde Ibarrola

2024.06.21

12:50:21

+02'00'

Ziurtatzen dut

IDAZKARIA,

Data:

2024.06.21

12:50:08

+02'00'

Nagore Madariaga Iriarte

